
ZURE ERTZA

Ez dudan arren badakit hor nonbait dela
nire zeruertza zure ertzen bat dela,
itsasontzia erre dut berriz,
utzi sartzen,
badakit ezetz esan nizula.

Azala trukatzan dizut mila galderengatik
zuri helduta baino ez naiz askatzen;
zauria mihizten didazu oraindik
sendatua den arren aspaldi,
ez da hori beldurtzen nauena;
aurrean ezer ez bada
eta nahiaren maitale, etsia.

Ez nuke nahi berriro erori,
gauza guzietan ez dute kontrakorik.
Niretzat *orain* da *beti* hitzarena
zuretzat *inoiz* ez dela badakit.
Emadazu, hala ere, *ertzarena*.
Ez du zertan izan *amildegi*.

AMUA

Neure amildegiaren ertzean zarela, galdera atzetik bultzaka dela,
ezin erabaki
honek bi egingo zaituela jakinaren gainean.
Galderak berak erdibatzen zaitu; buelta emanaz gero amu bat egiten du,
helduta zauzka.

BIDEA ETA DENBORA

Bideak eta denborak bat egin duten uanean
balea eri baten moduan ohituraren putzuan
lastaren lastana pisu, pausu larriz nabil
nahiz ez dudan inor atzetik
nahiz inor ez dudan zain.

Aurrean biderik ez da, norberak egina ez bada
pausu adina itzal atzean
eta aurrean zelai eder bat,
zelai eten bat.

Bueltarik ez da eta aitzina ez dut
nahi dudana ez dut behar,
behar omen dudana ez dut nahi.
Haize zakarrak nola, maitatzen dudana
dena desio arren
ez dut neuretzat ezer nahi.

Eta ez diot inori ezer eskatzen
ez dudalako eman nahi.
Pausu larriz nabil
nahiz inor, ezer ez dudan zain.
Edo bai.

Inoiz ez dizut kontatu behin lo zeundela
begiak ireki nizekizula zerbaiten bila
eta ikusi nizula itsaso lehor bat,
eta erdian, harkaitzaren barruan
arrain bat.

Inoiz ez dizut kontatu behin lo zeundela
begiak ireki nizekizula zerbaiten bila
eta ikusi nizula itsaso lehor bat,
eta erdian, harkaitzaren barruan
arrain bat.

Bizkarra mihiztu eta ileak etzaten zaizkizula
errekako ihia nola urak handitzean
eta otutzen zait, hobe dela malgu izatea
zurruna hautsi egiten dela.

Guk badakigu zerbait horretaz: hausteaz eta erortzeaz
orain zuk betetzen duzu ohe alde horrek
estaltzen duen amildegiak
heldu nazazu, lepa-hezurrean arnasa emadazu
bizkar haize da edonora jo nahi dugula
bide ezezagunak beti urrunago eraman gaitu
nahiz beldur itzela diogun.

Eta beldurra gose denean, libre dabilenean,
edozer jaten du: ametsak, gorputzak, begiak,
gezurrak edo egiak,
orain ni, gero zu.

Eskerrak ahulak garen,
erantzi eta jaten uzten garen,
bestela, bakoitza bere desertuan,
bere harkaitzaren barruan zain,
denborak laztan nazan, harea egin dezan,
etab. etab.

ESKUINEKO BIHOTZA

Desio-beldurrak berriro barruan emaltzen
baten atzetik jo eta biak aurkitzen.
Sutatik eskua erreta atera nintzen
orain kea ikuste hutsak nau izutzen.
Eskuineko bihotzaz dut orain sentitzen.
Bestea beldurtzen duena, honek suntsitzen.
Zeini jaten eman, hura hazi.

Zure aurrean nago eta ez nauzu ikusten.
Bihotza dut eskuinean inorena uki dezan
ze, nahi dut izan, nahi dut sentitu,
nahi dut izango naizena berriz.
Aingurak altxa, hegoei eutsi,
izuen bazka ametsei eman berriz.
Zeini jaten eman, hura hazi.

Bizitzaren urertzean hondartzen diren
izugarritzko balea horietako bat bezala
ez aurrera ez atzera
behea jota natza
itzalak dio: "irla bat".

Alde egiteko behar adina urik ez da
bizirauteko behar den adina ezta.

Esku-ahurrez urreztatzen nauzu
eta arrainez betetzen didazu barrua
sinesten duzulako hainbat gauza arinek
mugi dezaketela handi bat.

Bila gabiltzan gauza berri oro
behin izan genuen beste zerbaiten isla da.
Mugitzen ez den balea bat
ez da bere isla, irla bera da.

HARRIAK

Nik besoa eskaini
zuk eskua hartu.
Hala ere, beldurrik ez didazula diozu.
Zeru beltzetik elur zuria ari du,
bakoitzak murrua bere erara egiten du.

Harri pila bat dut zain ohean
utxidazu gaur gordetzen zurean.

Badira gau ilunean baino
ikusten ez diren hainbat gauza.
Beldurrak eta arrainak
hil arte hazi eta hazi eta hazi.

Behin zubi oso bat jan nuen
lehenengo harritik azkenera
hainbeste nahi nuenera
ez joateko.

arrain bat oparituko dizut nola hazten den ulertzeko zenbat ur behar duen harnaste-
ko, zenbat ur bitzitzeko, harri pila bat dugu metatua begien atzeko aldean: zubiak,
murruak, bideak, etxeak, harriak finean, gorputzak, galderak, begiak, hitzak, gilt-
zak eta oheak, Diogenesen sindrome emozional batek jota bezala, amets zaharrak
ereiten ditugu gorputz berri eta emankorretan, nor garen ahaztu arte opaltzen bes-
taren hankarteetan, besarka nazazu gogor iztarrekin hegan ez ateratzeko, zure barru-
rino sartu nahi dut benetan nor zaren ikusteko, beldur bat oparituko dizut nola haz-
ten den ulertzeko, zenbat zu behar duen arnasteko, zenbat *ni* bitzitzeko.

DISTANTZIA

Hasperen luzez, denbora geldituz,
distantzia nola neurtzen den galdetzen duzu.
Ausentziak batuz, nahi baduzu,
eta eskua bihotzean sartzen didazu.

Beti sentiti izan dut, edonon naizela,
beste dena neu nigandik baino urrunago dela.
Esatariak odola eskatzen du irratian,
zuk zauria laztantzen didazu begiez.
Alde egingo duzula diozu, hatz puntak janaz,
nire bihotzaren erditik, beti ikus zaitzadan.
Aurrean duguna sarri ikusezin bihurtzen da.
Barruak, begien aldean, bista luzea dauka.

Hasperen luzez, denbora geldituz,
ausentziak nola bete galdetzen duzu.
Distantziak kenduz, nahi baduzu,
eta eskua kasik bihotzean sartzen dizut.

ZUHAITZENA

Gauetz, etxera bueltan,
haize zakarrak astintzen du dena,
jendeak, men egiten bezala,
burua makurtzen diogu pasatzean.

Zuhaitzek, laguntza eskean bezala,
adarrak mugitzen dituzte gora eta behera.
Nire egonezinak, zaldi baldar batek nola,
bederatziz zenbakiz zulatu dizu loa.

Zuhaitzena kontatu nahi nizun,
haize zakarra neu naizela,
zuk egoteko lasai diozu -egongo garel-
gaur emandakoa bihar kendu egiten dudala -zuk uzteko lasai-
badakizula tigre baten gainean ibiltzen.

Eskuaz estali dut ilargia
gaur ez dut testigurik nahi,
batzuetan norbaiten falta baino
norberetik sobera
eta hau da zuloetan zuloena
harriak irentsiz baino betetzen ez dena.

ICEBERGA

Desizozten doa iceberga telebista barnean
desizaten noa eserita bere aurrean
izate hutsarekin higatzen, desegiten hasten da dena
halako zorion erregresibo batean bezala.

Atzera begira baino ez ditut ulertu gauzak
hainbesteraino ekidin eta beldurtu nauen lekuan natza
inorena dirudien bitzitza batean
neu naiz nigandik gehien ari dena urruntzen.

30 zentimetro urruntzen da iceberga urtero
neu naiz nigandik gehien urrundu dena.